



PRENTSA OHARRA

Eguerdi on eta mila esker bertaratu zareten guztioi. **Eskerrik asko** ere, hemen gurekin zaudeten eta **urriaren 25eko mobilizaziorako atxikimendua** eman diguzuen guztioi: BDZ EH, Gernika-Palestina, Yala Nafarroa, Sanitarioak Palestinarekin, Ongi etorri errefuxiatuak, Gazarako mugimendu globala EH, Steilas, LAB, CCOO, ELA, UGT, Emakumeak gerraren aurka, Donostia Palestina, Bilbo Palestina, Erripagaña Palestina, Santurtzi Palestinarekin, Musikariak Palestinarekin, EHIGE, BIGE, Euskal eskola publikoaz harro, Ikastolen elkarte, Sortzen Ikasbatuaz, Seaska, 31016 Palestinarekin, Palestinarekin Elkartasuna, NASAF, Psicología sin fronteras, Dindaia, Aita Mari, O-3 Plataforma, Sakana Harrera Harana, Guggenheim Urdaibai Stop, Gasteiz Anitza, Kurkuluxetan, Ratioak jeitsi 0-18 plataforma, Hiritarron harrera sarea, Egiari Zor, Irakasleok Palestinarekin, Amagintza, SOS arrazakeria, Euskal Herriko Bilgune Feminista eta Nafarroako torturatuen sarea.

Sionismoak 77 urte daramatza palestinarren lurra okupatzen. Garbiketa etnikoa etengabekoa izan da *Nakba* gauzatu zenetik eta azken 2 urteetan egoerak nabarmen okerrera egin du. Herri palestinarra **kolonizazio** eta **genozidio** baten **biktima** da; datuek hildakoak 65.000tik gora direla adierazten badute ere, argi dugu errealitatea are krudelagoa dela.

Save the Children GKEak baieztatu du **20.000tik gora** direla hildakoak, **42.000 haur zauritu** dituztela eta **132.000 haur txiki hiltzeko arriskuan** daudela. Nahiz eta Hill eta Polya doktoreen ikerketak datu hauek txiki utzi dituzten. Horrez gain, OCHAk ohartarazi du Gazako **5 urtetik beherako haur guztiak** (320.000 haur inguru) **desnutrizioa** pairatzeko **arriskuan** daudela, eta dagoeneko 367 pertsona **hil** direla desnutrizioarekin lotuta, horietatik **131 haur**. Hezkuntzari dagokionez, **658.000 haur baino gehiago eskubide horretatik kanpo** geratuko dira hirugarren ikasturte jarraian, eta ikastetxeen **%76,6 zuzenean erasotuak** izan dira. Gure Haurrak sufritzen ari diren **zauri fisiko eta emozional** hauek gainera, **bizi osoan eramango dituzte**, eta min hau gurea sentitzen dugu.

Zifra hauek egunero handitzen doaz, helburu argi batekin sionisten aldetik: palestinar guztiak euren lurraldetik kanporatu edo hauekin amaitzea, bai Gazan eta baita Zisjordanian ere. Egoera honen aurrean, **euskal gizarteak ezin du geldirik geratu ezta konplize izan ere.**

Bestetik, ezin dugu alde batera utzi, adingabekoak atxilotzea eta torturapean egotea. **Urtero 500 eta 700 palestinar adingabe bitartean atxilotzen** ditu Israelek eta tribunal militarrek

epaitzen dituzte (*Defence for Children International*). Guztion ardura da hau salatzea eta geldiarazten saiatzea.

Gure Haurrak Ere Badira ekimenetik **herri palestinarraren aldeko elkartasunerako deia luzatu nahi dugu**. Euskal erakundeei **genozidioa berehala amaitzeko neurriak hartzeko eskatu nahi diegu** eta **Israelgo Estatu sionistarekin harreman oro etetea; politiko, diplomatiko, ekonomiko, kultural...**

Eskakizun guzti hauek **Gasteizko Legebiltzarreko Justizia eta Giza Eskubideen Batzordean aurkeztu** genituen, baina tamalez ez gaituzte aintzat hartu eta ez da aldaketarik egon. Bide beretik, hurrengo hilabeteetan, **Nafarroako Legebiltzarrera gure eskakizunak eramango** ditugu.

Guzti honengatik, datorren **urriaren 25ean** hezkuntza-komunitateari eta euskal gizarte osoari antolatu dugun **mobilizazioan parte hartzeko deia luzatzen diogu**. Hainbat ekintza burutuko ditugu, eta horien **ardatz nagusia Bilboko kaleak** zeharkatuko dituen **manifestazioa** izango da (17:30). **Bilboko kaleak zapataz bete** nahi ditugu, Israeleko Estatu sionistak eraildako milaka haurrak gogoratu eta genozidioa eta okupazioa salatzeke. Bertaratzen diren guztiei zapatak ekartzeko eskatzen diegu eta udaletxeraino erametea omenaldi eta salaketa gisa (bertan egingo baitugu argazkia).

Esan dizuegun moduan, manifestazioaz gain, hainbat ekintza izango ditugu:

- Eguerdiko 12etan Bilboko Alde Zaharreko Zirika Gunean (erronda kalean) **Palestinaren historiaren inguruko hitzaldia** izango da. Borondatea jasoko dugu dirua Palestinara bidaltzeko.
- Eguerdiko 12etan *Askatasun Doinua* **Ipuin-kontaketa** ere izango da Bilboko alde zaharrean (lekua zehazteko). Kontaketa ostean, liburuen salmenta izango da eta bildutako diru guztia Palestinara bideratuko da.
- **Prentsaurrekoa ere, duela astebete salmentan jarri genuen Maitane Azurmendi artistak diseinatutako gure kamiseta aurkezteko baliatu nahi dugu. Manifestazio amaieran 15 eurotan erosteko aukera izango da (12 euro umeenak)**, eta bildutakoa ere Palestinara bideratuko dugu. Kamiseta online eta sindikatuen egoitzetan erosteko aukera ere izango da.
- Manifestazio amaieran, **pailazoak, musika eta beste ikuskizun batzuk** egongo dira udaletxean.

Duela aste batzuk sindikatuekin batera, Palestinaren alde **ostegunetan ikastetxeetan mobilizazioak egiteko deia** egin genuela gogorarazi nahi dugu. Dei honekin batera, **ostegunero gure kamiseta solidarioa eramateko gonbita** ere luzatu nahi dugu. Hurrengo webgunean erosi dezakezue:
https://shop.serigrafia.eus/gurehaurrak/eu/?fbclid=PAZXh0bgNhZW0CMTEAAacFeX4e504r77Lqe4nVgVXzQPl06ihrpW123ohuS3TxQAFRzP58SiwLJ-MRA_aem_FtEBbVKeoBvpWU3tUagDew

Telebistan emandako 2 urtetako genozidioa... Minez betetako 2 urte, non ezin duzun gehiago begiratu mingarriegia baita...

Min hau gure bihotzetan sartzen da: gure hurrei gertatzen ari zaiena ikustean, gure gorputzak urrundik ere min hartzen dutela sentitzen dugulako, eta gizateriaren porrot ikaragarria dela ohartzen garelako.

Tristura, amorrua eta inpotentzia nahasten zaizkigu, baina sentipen horiek ezin dira isilarazi. Horregatik aterako gara kalera urriaren 25ean, gure oihuak haien oihuak direlako.

Ez direlako urruneko haurrak: gure haurrak ere badira.

EUSKAL HERRIA PALESTINAREKIN!

GORA HERRIEN ARTEKO ELKARTASUNA ETA GORA PALESTINA!

GURE HAURRAK ERE BADIRA!



NOTA DE PRENSA

Buenas tardes y **gracias** a todas y todos los que habéis venido. Gracias también a quienes estáis aquí con nosotras y nos habéis mostrado vuestro apoyo para la **movilización del 25 de octubre**: BDZ EH, Gernika-Palestina, Yala Nafarroa, Sanitarioak Palestinarekin, Ongi etorri errefuxiatuak, Gazarako mugimendu globala EH, Steilas, LAB, CCOO, ELA, UGT, Emakumeak gerraren aurka, Donostia Palestina, Bilbo Palestina, Erripagaña Palestina, Santurtzi Palestinarekin, Musikariak Palestinarekin, EHIGE, BIGE, Euskal eskola publikoaz harro, Ikastolen elkarte, Sortzen Ikasbatuaz, Seaska, 31016 Palestinarekin, Palestinarekin Elkartasuna, NASAF, Psicología sin fronteras, Dindaia, Aita Mari, O-3 Plataforma, Sakana Harrera Harana, Guggenheim Urdaibai Stop, Gasteiz Anitza, Kurkuluxetan, Ratioak jeitsi 0-18 plataforma, Hiritarron harrera sarea, Egiari Zor, Docentes con Palestina, Amagintza, SOS Racismo, Euskal Herriko Bilgune Feminista y Nafarroako torturatuen sarea.

El sionismo lleva **77 años ocupando las tierras palestinas**. La limpieza étnica ha sido constante desde la Nakba y en los dos últimos años la situación ha empeorado notablemente. El pueblo palestino es víctima de una colonización y de un genocidio; aunque los datos oficiales indican que las personas muertas superan las 65.000, tenemos claro que la realidad es aún más cruel.

En lo que respecta a **nuestras niñas y niños**, la ONG Save the Children ha confirmado que la cifra supera los 20.000, que hay 42.000 heridos y 132.000 niños y niñas pequeños en riesgo de muerte. De todas formas, la investigación de los doctores Hill y Polya ha concluido que las cifras son mucho mayores. Además, OCHA advierte que todos los niños **menores de cinco años** en Gaza, unos 320.000, **corren riesgo de sufrir desnutrición** aguda. Hasta el 3 de septiembre se han documentado 367 **muertes** relacionadas con la **desnutrición**, entre ellas **131 niños**. En cuanto a la educación, **más de 658.000 niños se verán privados de su derecho a aprender** por tercer año consecutivo, y el 76,6% de los edificios escolares ha sido atacado directamente. Estas heridas físicas y emocionales que sufren **nuestros niños y niñas** las llevarán de por vida, y sentimos este dolor como propio.

Estas cifras aumentan cada día con un objetivo claro por parte de los sionistas: expulsar a todo el pueblo palestino de su territorio o acabar con ellos, tanto en Gaza como en

Cisjordania. Ante esta situación, la sociedad vasca **no puede permanecer inmóvil ni ser cómplice**.

Tampoco podemos olvidar las **detenciones y torturas a menores**. Cada año Israel detiene entre 500 y 700 menores palestinos y son juzgados por tribunales militares (Defence for Children International). Es responsabilidad de todas y todos denunciarlo e intentar detenerlo.

Desde la iniciativa **Gure Haurrak Ere Badira** queremos hacer un llamamiento a la solidaridad con el pueblo palestino. Pedimos a las instituciones vascas que adopten medidas para **poner fin de inmediato al genocidio** y que **rompan toda relación con el Estado sionista de Israel**: política, diplomática, económica, cultural...

Todas estas exigencias las presentamos en la **Comisión de Justicia y Derechos Humanos del Parlamento de Gasteiz**, pero lamentablemente no nos tuvieron en cuenta y no ha habido ningún cambio. En los próximos meses **llevaremos nuestras demandas** también al **Parlamento de Navarra**.

Por todo ello, hacemos un llamamiento a la **comunidad educativa y a toda la sociedad vasca** a participar en la movilización que hemos organizado para el próximo **25 de octubre**. Realizaremos diversas actividades, cuyo eje principal será una **manifestación por las calles de Bilbao**. Queremos llenar las calles de zapatos, para recordar a los miles de niños asesinados por el Estado sionista de Israel y para denunciar el genocidio y la ocupación. Pedimos a todas las personas que acudan que lleven zapatos, para llevarlos hasta el ayuntamiento, donde realizaremos una foto como homenaje y denuncia.

Tal y como os hemos comentado, además de la manifestación habrá diversas actividades:

- A las 12 del mediodía, en el Zirika Gunea del Casco Viejo de Bilbao (calle Ronda), habrá una charla sobre la historia de Palestina. Se recogerán donativos que se enviarán a Palestina.
- También a las 12 del mediodía, se celebrará un cuentacuentos titulado *Askatasun Doinua* en el Casco Viejo de Bilbao (lugar por concretar). Tras el cuentacuentos habrá venta de libros, y todo lo recaudado se destinará a Palestina.
- Queremos aprovechar también esta rueda de prensa para presentar la camiseta diseñada por la artista Maitane Azurmendi, que pusimos a la venta hace una semana. Al finalizar la manifestación se podrá comprar por 15 euros (12 euros la de niños/as), y lo recaudado se enviará a Palestina. También se podrá adquirir online y en las sedes sindicales.
- Al finalizar la manifestación, habrá payasos, música y otros espectáculos en las escaleras del ayuntamiento.

Queremos recordar que hace unas semanas, junto con los sindicatos, hicimos un llamamiento a realizar **movilizaciones en los centros escolares los jueves** en apoyo a Palestina. Con esta llamada, queremos invitar también a llevar nuestra camiseta solidaria cada jueves. La podéis adquirir a través de la siguiente web: <https://shop.serigrafia.eus/gurehaurrak/eu/?fbclid=PAZXh0bgNhZW0CMTEAAacFeX4e504>

[r77Lqe4nVgVXzQPl06ihripW123ohuS3TxQAfRzP58SiwLJ-MRA_aem_FtEBbVKeoBvpWU3tUagDew](https://www.youtube.com/watch?v=r77Lqe4nVgVXzQPl06ihripW123ohuS3TxQAfRzP58SiwLJ-MRA_aem_FtEBbVKeoBvpWU3tUagDew)

Un genocidio retransmitido en televisión durante 2 años... Dos años llenos de dolor, en los que a veces no puedes seguir mirando porque duele demasiado...

Ese dolor se nos clava en el corazón: porque vemos lo que les está ocurriendo a nuestras niñas y niños, porque sentimos que nuestros propios cuerpos sufren aunque estén lejos, y porque nos damos cuenta de que es un fracaso atroz de la humanidad.

La tristeza, la rabia y la impotencia se mezclan, pero esos sentimientos no pueden ser silenciados. Por eso saldremos a la calle el 25 de octubre, porque nuestros gritos son también los suyos.

Porque no son niñas y niños lejanos: son también nuestras.

¡EUSKAL HERRIA CON PALESTINA!

¡VIVA LA SOLIDARIDAD ENTRE LOS PUEBLOS Y VIVA PALESTINA!

¡GURE HAURRAK ERE BADIRA!